

BESTE ABESTI BATZUK



Esan bezala, orain Euskal Herrian ezagunak diren abesti batzuk Araotzen jasoak dira, besteak beste. Horietako bat da “Soldadu sartu nintzan”. Kantu hau Araozko Timotea Guridi eta Maria Joxepa Zumalderi jasotakoa da eta doinu ezaguna bihurtu da orduz geroztik, besteak beste, Ruper Ordorikak argitaratu zuelako Hiru Truku taldeak grabatutako disko batean (Txikitin parian izenburuarekin). Honez gain, bertsotan kopla modura asko erabiltzen da.

SOLDADU SARTU NINTZAN

Soldadu sartu nintzan
zortzi bat urteko,
Errege serbiduta, txikitin parian paina,
ai libre izateko.

Erregek ez dau behar
gizon ezkondurik
baizikan mutil libre, txikitin parian paina,
ai libre-libretxorik.

Mutilik behar eta
mutilik egon ez
Errege silan dago, txikitin parian paina,
ai jarrita negarrez.

Txikitin parian (Hiru Truku) - <https://www.youtube.com/watch?v=Gos-MpkPAIO>

Neskak badaude baina
ez dute balio
Erregeri begitik, txikitin parian paina,
ai negarra dario.

Bergaran nindoiala
Brigadearekin
enamoradu nintzan, txikitin parian paina,
ai damatxo batekin.

Etxezuriko dama
ikusten badozu
gorantziak daiola, txikitin parian paina,
ai esango diozu.

Zeinek hori eman dizun
galdetzen badizu
Felix de Aranburu, txikitin parian paina,
ai esango diozu.

Felix de Aranburu
hain gizon trebea
Bergaran bilatu dau, txikitin parian paina,
ai beretzat andrea.

Doinuari buruzko informazioa

<https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3111-soldadu-sartu-nintzan>

